BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3816

EBAZPENA, 2014ko irailaren 1ekoa, Gizarte Politiketako sailburuordearena; honen bidez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko lege-proiektua jendaurrean jarriko da.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko lege-proiektua lantzeko prozedurari hasiera ematea onartu zen.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoak eraginpean hartzen dituzten xedapen orokorrei entzunaldiaren izapidea aplikatuko zaie. Halaber, eta xedapenen izaerak aholkatzen duenean, jendaurrean jarriko dira.

Ildo horretatik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko lege-proiektua hogei egun balioduneko epean jendaurrean jarriko da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreko guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko lege-proiektua hogei egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko, lege-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan (helbidea: Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz), Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (www.euskadi.net), Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren atarian (www.gizartelan.ejgv.euskadi.net) eta Irekiaren atarian (www.irekia.euskadi.net).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 1a.

Gizarte Politiketako sailburuordea,
IÑIGO POMBO ORTIZ DE ARTIÑANO.